

[Eusk/Cast] Askatasun Haizeak kontzentrazioa burutu du Gernikan

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 27/02/2021

Askatasun Haizeak Martxoaren 3ko gertakariak gogora ekartzeko kontzentrazioa burutu du Gernikan.

Larunbatero legez, jendez gainezka zegoen Gernika batean 30 pertsona kontzentratu dira Merkurio plazan Askatasun Haizeak antolatutako kontzentrazioan. Elkarretaratze hau burutzerako orduan Askatasun Haizeak langile klasearen borrokaren alde eroritakoak gogora ekarri, "garrantzi historiko eta politiko ikaragarria" aldarrikatu eta honekin batera kapitalaren "zapalkuntza bortitz eta krudela" salatu nahi izan dute.

Era berean, antolatzaileek Martxoaren 3a independentzia eta sozialismoaren bidean borrokan jarraitzeko aurrekari bezala bere garrantzia azpimarratu eta Euskal Herri Langileak nazio eta klase gisa pairatzen duen zapalkuntzari aurre egiteko antolatzeko beharra azpimarratu dute. Ekimen hau Bultza herri ekimenarekin batera planteatu du Askatasun Haizeak, hurrengo hitzordua martxoaren 3an bertan izango delarik Bilboko Karmelan 19:00etan "Euskal Herri Langilea independentzia eta sozialismoa bidean" izenburu pean.

[Castellano]

Askatasun Haizea ha realizado una concentración en Gernika a raíz de los sucesos del 3 de Marzo.

En un Gernika cuyas calles estaban a rebosar como cada sábado unas 30 personas se han concentrado en la plaza de Mercurio en una concentración organizada por Askatasun Haizea. A la hora de realizar esta concentración Askatasun Haizea además de traer a la memoria a los caídos en el 3 de Marzo y reivindicar "la gran importancia histórica y política" de esta fecha, ha querido denunciar a su vez la "opresión cruel y brutal" del capital.

De la misma manera, los organizadores han querido reivindicar la importancia del 3 de Marzo como antecedente en la lucha hasta la independencia y el socialismo. Además de eso, han querido subrayar la importancia de que el pueblo trabajador vasco se organice para superar la opresión que sufre tanto a nivel nacional como de clase. Esta dinámica, que ha sido planteada de manera conjunta entre Bultza y Askatasun Haizea, culminará el 3 de marzo a las 19:00 con la charla titulada "El Pueblo Trabajador Vasco en camino a la independencia y el socialismo" que se realizará en Bilbo en Karmela.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/eusk-cast-askatasun-haizeak-kontzentrazioa